

# Oiloa

**Arroltze<sup>1</sup> moleta bat egin pazko garaian.**

<sup>1</sup> arrautza



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Ahoskera

/r/, /r̄/ dardarkariak

Arroltzea, herria/eria/erhia, hiria/irria, haria/harria... Gauzak konkretuki erakutsi eta hitzak errepikaraz.

« Ene herrian eriek irri guti. » eta « Hari eman iezaiok berri. » erranaldiak errepikaraz.

## Aditza

Hartu, hautsi, bota, jan... aditzen inguruan, \*edun (nor-nork) aditz-laguntzailea eta ergatiboa erabil.

- Nik hartu dut.
- Nik hartu ditut.
- Nork hartu du arroltzea ?
- Nik hartu dut.
- Zuk bota duzu gatza ?
- Bai, nik bota dut.

## Hemen, hor, han aditzondoak

### Ikasleak non

Irakasleak agindurik (*Maider, jar zaitez hor*), ikasleak ikasgelako gune zehatz batzuetan kokatzen dira. Gero haur bakoitzak toki berezi batean gauza bat ezartzen du eta erranaldi bat asmatzen du erakusleak erabiliz. Adib. : - Nire arkatza, han dago.



## Talde mugimendua

Haurrak errondan daude. Bertso-ipuina errepikatuz, bakoitzak bere aldi, erhi baten jokoa egiten du. Tipiarena gertatzen zaionak baztertu behar du. Bertso-ipuina deklamazioa bukatzen da jokolari bakar bat gelditzen denean.

## Antzerki laburra

Haur bakoitzak egintza bat mimatzen du eta besteek zein den asmatu behar dute.

Aditzondoak  
- Nire arkatza han dago.

nor-nork indikatiboan.  
- Nik gatza bota dut.  
- Zuk egurra ekarri duzu.